

## Ekonomia berri honek...

- Gizarte txanponekin gauzatzen da eta zorrak sortu gabe merkataritza ahalbidetzen du.
- Gizartean beharrezkoa den lana banatzen du (baita zainketa lanak ere).
- Gizarte eta ingurugiro irizpideak jarraituz maileguak ematen dituzten finantza erakundeak sortzen ditu.
- Honako hau garbi ulertzen du: askoz langile gehiago behar dira garraio publikoan, birziklajean, energia berriztagarrietan, nekazaritza ekologikoan, eta gutxiago automobilen industrian, errauskailu eta zabortegetan, energia zikinetan eta nekazaritza industrialean.
- Sektore garrantzitsuenen (energia, ura, finantza sistema,...) gizarte kudeaketa demokratikoaren alde egiten du.
- Ekoizten dutenak eta arduraz eta bidezko prezioa ordainduz kontsumitu nahi dutenak harremanetan jartzen ditu.
- “Berrerabili eta konpondu” ideia bultzatzen du, “erabili eta bota” horren ordez.
- Gizartearen baliabideak, ingurugiro eta gizarte eraldaketaren alde jartzen ditu.
- Gehien dutenei zerga handiagoak ezarri, aberastasuna banatu behar dela aldarrikatzen du.

**Labur esanda  
“norbanakoarentzako irabazirik  
handiena” bilatu ordez, “guztion  
beharrak asetzea” bilatzeko  
ahalegina esan nahi du  
ekonomia berri honek.**

Gurekin batera bide honetatik abiatzeko gonbidatu nahi zaitugu, errezeta magikorik gabe baina aukerak mugagabeak izanda, erabakiak zugatik hartu beharrean, zurekin hartuz. Bakarrak guztion partehartzearekin ekologismorantz jo eta krisia alde batera utzi ahal izango baitugu.

# ekologismoa

# ala krisia



Ingurugiro eta gizarte  
justiziaren alde!

**Andalucía:** Parque San Jerónimo, s/n, 41015 Sevilla  
Tel./Fax: 954903984 andalucia@ecologistasenaccion.org

**Aragón:** Gavín, 6 (esquina c/ Palafox) 50001 Zaragoza  
Tel: 629139609, 629139680 aragon@ecologistasenaccion.org

**Asturies:** Apartado nº 5015, 33209 Xixón  
Tel: 618330752 asturias@ecologistasenaccion.org

**Canarias:** C/ Eusebio Navarro, 16 - 35003 Las Palmas de Gran Canaria  
Avda. Trinidad, Polígono Padre Anchieta, Bld. 15 - 38203 La Laguna  
(Tenerife) Tel: 928362233 - 922315475 canarias@ecologistasenaccion.org

**Cantabria:** Apartado nº 2, 39080 Santander  
Tel: 942240217 cantabria@ecologistasenaccion.org

**Castilla y León:** Apartado nº 533, 47080 Valladolid  
Tel: 983210970 castillayleon@ecologistasenaccion.org

**Castilla-La Mancha:** Apartado nº 20, 45080 Toledo  
Tel: 608823110 castillalamancha@ecologistasenaccion.org

**Catalunya:** Can Basté - Passeig. Fabra i Puig, 274, 08031 Barcelona  
Tel: 648761199 catalunya@ecologistesenaccio.org

**Ceuta:** C/ Isabel Cabral, 2, ático, 51001 Ceuta ceuta@ecologistasenaccion.org

**Comunidad de Madrid:** C/ Marqués de Leganés, 12, 28004 Madrid  
Tel: 915312389 Fax: 915312611 comunidaddemadrid@ecologistasenaccion.org

**Euskal Herria:** C/ Pelota, 5, 48005 Bilbao Tel: 944790119  
euskalherria@ekologistakmartxan.org C/ San Agustín, 24, 31001 Pamplona  
Tel. 948229262. nafarroa@ekologistakmartxan.org

**Extremadura:** C/ de la Morería, 2, 06800 Mérida  
Tel: 927577541, 622128691, 622193807 extremadura@ecologistasenaccion.org

**La Rioja:** Apartado nº 363, 26080 Logroño  
Tel: 941245114 - 616387156 larioja@ecologistasenaccion.org

**Melilla:** C/ Colombia, 17, 52002 Melilla  
Tel: 951400873 melilla@ecologistasenaccion.org

**Navarra:** C/ San Marcial, 25, 31500 Tudela  
Tel: 626679191 navarra@ecologistasenaccion.org

**País Valencià:** C/ Tabarca, 12 entresòl, 03012 Alacant  
Tel: 965255270 paisvalencia@ecologistesenaccio.org

**Región Murciana:** C/ José García Martínez, 2, 30005 Murcia  
Tel: 968281532 - 629850658 murcia@ecologistasenaccion.org

**ZUREKIN** ASKOZ GEHIAGO  
EGIN DEZAKEGU  
...batu indarrak • [www.ecologistakmartxan.org](http://www.ecologistakmartxan.org)

**ekologistak  
martxan** 

  
**ekologistak  
martxan**

**Ezin da ukatu krisi ekonomiko larrian sartuta gaudela. Baina honekin batera argi dago ingurugiro krisi sakona gertatzen ari dela ere.**



Gure planetaren, gure ingurugiroaren osasuna krisian dago, eta arazo hau funtsezkoa da gizakiok duintasunez bizi ahal izateko. Gizakiok sortzen ari garen ingurugiro krisi honen hiru alderdi nagusiak, hauek dira:

- **Bioaniztasunaren galera izugarri handia.**
- **Klima aldaketa.**
- **Baliabide estrategikoen agortzea** (hau da, erauzte gailurrera heltzea), **bereziki erregai fosilen agortzea.**

Orain dela mende batzuek munduan ustiatu gabeko baliabide ugari zeuden eta baita ere gure hondakinak botatzeko erabili gabeko hobiak zeuden (atmosfera esaterako).

Baina gaur egun gizateriaren historian lehen aldiz, mundua "beterik" dago, gizakiok erabat bete dugu, eta bere ezaugarri nagusia iadanik ez da oparotasuna, baizik eta urritasuna.

*Ez da gizarte justiziarik izango, ingurugiro justiziarik gabe*

**Sendatzen ez dituzten errezetak...**

Krisi ekonomikoa gainditzeko **laztasun eta zorrotzasun errezetak** indarrean jarri dira, gizarte gastuetan murrizketa handiak egin, eta gizartearen gehiengoa pobretzen ari da, borroka askoren ondoren lortutako gizarte eskubideak galtzen ari dira. Errezeta hauekin pertsonen eta naturaren esplotazioa areagotzen dira, aberatsenak diren munduko biztanleen %1-ari zorieko zorra itzultzeko. Gurea ez den zorra, gainera.

Mahai gainean ere ba daude **hazkundearen errezetak**, hau da, kontsumoa bultzatzea ekonomia bizkortzeko. Baina errezeta hauekin mundu mailan dauden desberdintasun izugarriak indartzen dira: kontsumismoa gutxiengo batentzat, munduko biztanleriaren gehiengoaren gaizki ordaindutako lanari esker.

Errezeta biak iraganeko errezetak dira. Mundua "hutsik", ustiatu gabe zegoenean, errezeta hauek ba zuten oraindik zentzurik, nahiz eta zentzu makabroa izan. Gaur egun ez dute balio eta zenbat eta denbora gehiago egin errezeta horiek jarraituz, ondorioak okerragoak izango dira.

**Horregaitik esaten dugu: ekologismoa ala krisia**

Krisi hau ezin izango dugu konpondu iraganeko krisiak bezala edo alde bateko ikuspegia erabiliz. Guztiz berria den une historiko baten aurrean gaude. Arazoa, batean, bere osotasunean konpondu behar dugu: gizarte justizia lortu behar dugu, gizaki guztien beharrak asetzea bermatu behar dugu planeta esplotatu ordez planetarekin pakean bizi den sistema ekonomiko berria indarrean jarritz.

**Ekonomia honetan pertsonak demokratikoki antolatzen dira haien bizitzen gaineko boterea berriz hartzeko, eta ondorengo belaunaldiei planeta osasuntsua uztea ez da xede bakarra, oraintxe bertan ere gozatu nahi dugu.**

